



# FLASS

Irene González, Uxue Jauregi eta Izaro Chiyah  
IES Balmaseda BHI — ZALLA TALDEA



## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

"FLASS" enpresa adinekoen eta mugikortasun urriko pertsonen mugikortasuna modu eroso, seguru, atsegin eta ez kutsatzailean errazteko pentsatuta dago. Ibilbide atsegina eskaintzen duen enpresa da, gidari espezializatuekin, eta behar izanez gero, laguntza ematen dute. Enpresarekin kontaktua errazteko aplikazio bat dugu, eta berrikuspenak eta hobekuntza-eskaerak uzteko atal bat.

Enpresa honen gehigarri bat, diferentzia markatzen duena, eguzki-plaken erabilera da, energia berriztagarria erabiltzeko, ahalik eta gutxien kutsa dezan. Gainera, pertsona horien beharrei erantzuten badiegu ere, behar gaituen edonor ere lagundu diezaiekegu.